

4. DIRU-SARREREN ITURRIAK

Ikassmart-en diru-sarrera iturri nagusiak harpidetza-planetatik, klase partikularrengatik ordainketetatik eta irakasleekiko lankidetzatik datoz.

Lehenik eta behin, aplikazioak hiru plan ditu:

- Plan Estandarra: doakoa, izena emateko eta irakasleekin mugatutako bideo-deiak ikusteko aukera ematen du (gehienez 20 minutu saio bakoitzeko).
- Pro Plana: hilean 10 €-ko kostuarekin, plan estandarraren abantaila guztiak barne hartzen ditu, baita partekatutako apunteen atalean sartzeko aukera, praktika-azterketak eta ikaslearen maila akademikoari egokitutako IA bat ere.
- Premium Plana: hilean 20 €-ko kostuarekin, 24/7 sarbide osoa eskaintzen die ikasleei, arretaren lehentasuna, hobekien baloratutako irakasleak eta edozein unetan zalantzak argitzeko espazio eskusiboa.

Bestalde, ikasleek zuzenean ordaintzen diete irakasleei klase partikularrengatik, eta 2 €-ko prezioa dute 5 minutuko. Kopuru horretatik, Ikassmart komisioarekin geratzen da (% 10eko komisioa), eta horrek aukera ematen du diru-sarrerak sortzeko soldatetan altuak diren kostu finkoak bere gain hartu gabe.

Gainera, etorkizunean diru-sarrerak publizitate-akordioen edo hezkuntza-lankidetzen bidez sortzeko aukera aurreikusten da, betiere erabiltzaile-esperientzia egokia mantenduz eta plataforma gehiegi kargatu gabe.